

## BERRI OROKORRAK

2023ko urtarrilaren 19an 18. zenbakia

### Eski-irteera datak

Bi egunetako eski irteera **urtarrilaren 21ean eta 22an** izango da.  
Egun bateko irteera **urtarrilaren 28an**.



### Zibersegurtasuna

**Urtarrilaren 26an**, osteguna, arratsaldeko **17:00etan Potxoenean**, Hitz-Aho guraso elkarteak antolatuta eta Urko Zurutzak bideratuta, **“Interneteko arriskuak eta ziberseguru jokatzeko aholkuak”** hitzaldi-solasaldia izango da. [Hemen informazioa](#).



### Zu ere mintzalagun

Aurten ere, Usurbilgo Mintzalagun ekimenean parte hartzeko aukera zabaldu da: astean behin mintzataldean bildu eta patxadaz hitz egin, bestelako jarduerak, hitzaldiak, txangoak eta besteetan parte hartu. Izen-ematea zabalik dago, doakoa da eta hainbat abantaila ditu, tartean deskontuak, opariak...  
Izen-ematea: euskaltegian galdetu edo [klikatu hemen](#).



# HAUR HEZKUNTZA

### Inauteriak

Gogoratu, laster inauteriak datozela eta zakuak prestatu behar direla. Norbaitek zakua prestatu gabe baldin badauka eta laguntza beharko balu, tutoreari jakinarazi mesedez.



# LEHEN HEZKUNTZA

## Eskola-kirola

**Urtarrilaren 30ean**, futbol-eskubaloian dabiltzan **LH 5 eta 6-ko neskak futbolean** hasiko dira Haranen 17:00etatik 19:00etara, eta **mutilak eskubaloian** Oiardo kiroldgian 16:30etik 18:30era.

